

# Ageriko bilkura

Maulen, 2011ko ekainaren 25ean

## JEAN-BAPTISTE «BATTITU» COYOS EUSKALTZAIN OSOAREN SARRERA-HITZALDIA

Maulen, 2011ko ekainaren 25ean, egin da Jean-Baptiste «Battitu» Coyos euskaltzain osoaren Sarrera-hitzaldia, Arautegiaren 36. artikulua araberaren, Mauleko «Maule Baitha» zinemagelan, eguerdiko 10:30ean. Coyos, 2010eko azaroaren 26an izendatu zuen euskaltzain oso Euskaltzaindiak.

Bildu direnak:

Euskaltzain Osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Aurelia Arkotxa buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Pierre Charriton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Joseba Lakarra, Emile Larre, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Joan Mari Torrealdei, Ana Toledo, Patxi Urizarren, Xarles Videgain, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dute: Miren Azkaratek eta Patxi Salaberrik.

Euskaltzain Ohorezkoak: Erramun Baxok eta Junes Casenave-Harigile.

Euskaltzain urgazleak: Gexan Alfaro, Kepa Altonaga, Xipri Arbelbide, Gidor Bilbao, Jon Casenave, Pruden Gartzia, Jazinto Iturbe, Daniel Landart eta Manex Pagola.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Batzordekideak: Irantzu Epelde, Santi Larrazabal eta Jasone Salaberria.

*Euskera*. 2011, 56, 1-2. 95-174. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Jon Artza, Annie Etxeberri eta Amaia Okariz.

Idazkariak ekitaldi akademikoari hasiera eman dio ekitaldiaren nondik-norakoa argituz eta barne-erregelen 64.8 artikulua dioena irakurriz. Ostean, Michel Etchebest auzapezak ongi etorria eman die bertan zirenei, eta jarraian Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu du hitza, biek Ipar Euskal Herrian euskararen ofizialtasuna aldarrikatu dutelarik.

Ondoren, Jean-Louis Davant eta Xarles Videgain euskaltzainek lagunduta, batzar aretoan sartu da Jean-Baptiste «Battittu» Coyos «Euskararen bi dikotomia» izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzeko. Erantzuna Txomin Peillen euskaltzainak eman dio, «Mintzo haren ohoreagatik» hitzaldiarekin.

Zuberoako euskararen iragana, oraina eta geroa izan dituzte hizpide bai Coyos-ek eta baita Peillenek ere, gaur Maulen bildutakoei zuzendutako hitzaldietan. Hari horri tiraka, Battittu Coyos euskaltzain oso berriak euskara eta euskaldunek bizi dituzten dikotomia bi -batetik, euskaldun berria eta euskaldün zaharra, bestetik, euskalkia eta euskara batua- bere lurraldera eraman ditu, gaur egungo «euskararen ikusteko moldea egitüratzen beitüe». Bere esanetan, euskaldun berri/euskaldun zahar eta euskalkia/batua kontzeptu ustez kontrajarriek, «alkarreki joaten diren bi nozioak oposatzen beitütügü, pare hori moldatzen düen bi geiak, ene ustez bakotxa sos baten bi aldeak bezala ikusi behar dütügü. Alde bat bestea gabe deüs izatez, batak besteariki kontzeptü hori bere osotartzünean entelegatzen lagüntzen gütü».

Desberdintzea, gainera, ez da guztiz ortodoxotzat hartu behar, hizkuntzaren bilakaerak testuinguru berriak dakartza eta; transmisioaren zuloa, neurri batean, gau eskolek eta ikastolek bete dute eta, berak esan bezala, euskaldun kategoria berri bat sortu da, «euskara eskolan ikasi düen gazteak, etxen errezebitü ez düena. Kategoria horrek ere molde batez euskaldün berria / euskaldün zaharra dikotomia eztabadan jarten dü».

Euskaldun zahar zein berrien atsekabeak ekarri ditu gogora, eta sufrimenduaz mintzatu da, sentimendu horren bi aldeak aipatu dituelarik, lotsa eta gabezia, batzuentzat lehena, besteentzat bigarrena. Hala, bada, euskaldun zaharrak sufritu du «bere mintzajea baliorik gabe zela ikusten züelarik», eta euskaldun berria, aldiz «ez da seküla euskaldün zaharra izanen». Zuberoan ere gurasoek seme-alabei euskara eman ez izanaren arrazoia ikertu behar da. Eta honela azaldu du: «Ama mintzajea haurrei ez emaita euskaldün berri / euskaldün zahar dikotomia horri güiz lotürrik

da. Ama mintzajearen transmisioeak ala transmisioe eskasak dikotomiaren egi-lea da. Fenomeno horren arrazuen entelegatzea zinez inportanta da, ene ustez, euskararen geroa segürtatü nahi balin badügü. Konprenitzen balin badügü ontsa zertako gure aitetametarik haboroxeak ez düen beren ama-mintzajea eman, eüska-ra transmititzeko ordüan zoin balintzak, zoin alteko testüngürüa indarrean eman beharko dütügüla aisago, argiago dateke».

Noski, transmisio eten hori Euskal Herri osoan gertatu da, baina Ipar Euskal Herrian Frantziako estatuaren idiosinkrasiari lotzen zaio: «Badakigü Frantziako he-rrialde ezbardinetan bigarren mündüko gerlatik landako urteetan gaüzatü dela, molde ezbardinetan bada ere. Britainian ber fenomenoa, erran nahi beita mintzaje propioaren ez emaita, hots bretua, ezagütü da ere eta ber denboran apür edo hanitx, bigarren mündüko gerlatik landa, bietan hogeita hamargerren urteetan. Ordüan, Frantziako ordüko gizarte, ekonomia eta politika-balintzei lotürük zela erran dezakegü».

Horiek horrela, ikerketa baten beharra ikusten du Coyosek: «Ikergai inportan-ta badügu konprenitzeko nola Frantzian esküaldeetako mintzajeak ordüan eta ez lehenago edo berantago ützirik izan zirela. Erran gabe doa lan talde zabal bat izan behar lizateala, soziolinguistikian, psikolinguistikian bena bai ere ekonomian, sozio-logian jakintsüak üztartü behar lütükeana. Ikerketa hori beharrezko da orai kon-trako bidea hartu nahi beitügü, eskolan xiberotarraren eta eüskararen ikasteaz gain familian mintzajea emanik izan dadin nahi beitügü, transimisionearen arra-piztea hots».

Bigarren dikotomiaz, euskalkia eta batuaren arteko dikotomiaz, berriz, Coyosek ideia argia eman du, eta batuaren beharraz mintzatu da: «Tresna bat da alkar kon-prenitzeko, euskaldünek moldatzen düena beren euskalkiaren arabera bat balin badüe, solaskidearen, testüngüraren arabera. Haütüa sinple da, euskara batua ala eüskararik ez».

Zuberoan, diglosian baino, triglosian ikusten du Coyosek, zubererari lehenik frantsesera gainjarri baitzaio, orain batua ari baita sendotzen bertako hizkeren on-dotik. «Berri txarra dea hori? Ene ustez, ez, frantsesak hartü züan leküa hartzen beitü apür edo hanitx, eta hari esker beste euskaldünekin eüskaraz elesta gaiteke».

Kontuak kontu, «mauletar, xiberotar eta euskaldun gisa» mintzatu den Coyosen aburuz, Zuberoan badira euskaltzaleak, euskal elkarteak, ikastolak, gau eskolak, irratia... eta «xiberotarren geroa gure esküetan eta hobe ahoetan da. Nik lüzez bi-ziko dela sinesten dü, zinez».

J. B. Coyosen hitzaldiaren segidan Txomin Peillenen erantzuna etorri da. T. Peillenek gogoan izan du hark egindako lana zubereraren alde, Zuberoako euskararen lekukotza historikoak izan ditu aipagai, lehenik eta behin, XIV. mendeaz geroztik bertako hizkera ikerketa- edota literatura-lanetan bildu dutenak gogora ekarri eta, bide batez, Coyosen lana ere tradizio horretan kokatuz. Bere esanetan, «ordüan eta orain bi arrenküra handi üken dütü eüskara bizi dadin, hortarako Euskaltzaindian aitzinetik eüskara defendatzen düan Sustapen Batzordean dago; bestalte gure mintzajea linguistikan barnetik ezagütüa eta jarraikia izan dadin nahi izan dü. Bai mündü orotan dioie mintzaje ederra dügüla, bena jente eder hanitx bezala mintzaje ezinago ederrak lürpean dira, guri zaikü bizirik egonaraztea».

Hortaz, Peillen-ek euskaltzain berriak liburuetan bildutako ikergaia izan du hizpide, Xiberotarra zuberera, le dialecte basque souletin bereziki, J. B Coyos-ek berak gaur aldarrikatu duen ideia indartzeko. Izan ere Txomin Peillenen esanetan, «Jean-Baptiste Coyosek erakusten deikü dialektoa eta euskara batua ez direla etsai bena bakotxak badüala bere eremü berhezia, Euskara batua hon beita eskolako libürü zombaiten egiteko eta zuberotar ez direnekin aisago entelegatzeko ez beikira denak mintzaje jakile».

Irakaskuntzan, kulturean, administrazioan edota hezkuntza euskarak duen presentzia apal baina esanguratsua jorratu du Peillen, esparru bakoitzeko argi-ilunak erakutsiz. Berak ere arduraz ikusten du transmisioaren etena, jende gaztearen erdalduntzea.

Horren guztiaren gainetik, baikor agertu nahi izan du: «Hemeretzigarren mendean Onésime Reclusek zion eüskarak ez züala hogeigerren mente azkena ikusiko, eta Julien Vinsonek hogeigerrenean 300.000 mintzazaletarat jaitsiko zela. Ehün urte irabazi dütügü eta gure mintzajea jente zombaiten gisa bizi da, zahar eta ezin hilez, gazte eta ezin biziz, bena Egiategik idatzi bezala mintzajearen ohorea ahal bezain lüzaz etxeki behar dügü eta horretarako eginahalak egin. Halabiz».

Hitzaldiak amaitu ostean, eta euskaltzain berriak, Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela hitza eman ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoen domina eta diploma eman dizkio Jean-Baptiste Coyosi. Gainerako euskaltzainek eskua eman eta besarkatu dute, ondoren J. B. Coyos.

Ekitaldi akademikoa amaitutzat emanez, opari eta oroigarrien unea heldu da. Hala, Michel Etchebest Mauleko aüzapezak Gonzalo Etxebarria artistaren koadro bat eman dio, Herriko Etxearen izenean. Maddi Oihenart kantariak abesti bat kan-

tatu du. Robert Laborde biarnesak Jean-Marie Grangé biarnes apezaren «Estanguet a casa» testuaren irakurketa egin du (1945ean idatzia, Lapurdin). Eta Ibai Capot-Thornary eta JohaÑe Sarraillet Zuberoako bi koblakari gazteek bina bertso eskaini dituzte.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzekin bukatu da Ageriko bilkura, 12:30ean.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,  
idazkaria